

GIG 12

SAKONETAKO KAREKIZKO FLYSCHA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,25**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sakonetako hondartzan, Itziar formazioko ebakidura ikusgarri bat bereizten da, Goi Kretazeoko hasierako (Cenomaniar, Turoniar, Coniaciar eta Santoniarreko) karekizko flyscharen adierazgarria.

Segida Andutzeko failan hasten da eta 700 m inguruko lodiera du. Kareharrizko eta tupazko estratu dezimetrikoz osatuta dago, eta turbidita txikiak ditu tartekatuta. Formazio horrek lasaitasun tektoniko eta itsas transgresioko periodo luze baten hasiera markatzen du; periodo horretan, itsas hondoa lasai eta sakon bihurtu zen inguru hori, eta tupen eta kareharri tupatsuen nahiz turbidita gutxi bazuen sedimentazio hemipelagikoa izan zen nagusi.

Segida, halaber, aztarna fosilen museo natural bat da. *Chondrites* eta *Subphyllochora* izeneko adibide deigarriak nahiko garbi bereizten dira, eta *Rotundusichnium zumayensis* bereziki azpimarratu behar da, oso bitxia delako eta bertan definitu zelako lehen aldiz. Joaquín Gómez de Llarenak definitu zuen azken hori, honela: milimetro gutxi batzuetako zabalera duen lorratz helikoidal bat da, oso bira estuean bilduta, eta birek 40 cm-rainoko diametroko espira bat osatzen dute.

NOLA BERTARATU

15 minutu inguru oinez eginda erraz iristen da Sakonetako hondartzara Errota Berri atsedeneku eta landa-etxetik, bai eta Mendatagainako begiratokitik ere. Errota Berrira joateko, N-634 errepidean bertarako bidea hartu behar da Itziar eta Zumaia artean; eta begiratokira iristeko, berriz, Itxaspe kanpinera joateko bidea hartu behar da, Itziarko gainean.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Sakonetako karekizko flyscharen segidaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555816 m / Y= 4793995 m / Alt.= 2 m



Paleodictyon, gertutik ikusita.